

Gaur bertan hasi eta igande arte [Atlantikaldia jaialdia ospatuko da Erreterria/Oreteran](#). Lehen aldia izango da, eta jaialdi honek herriaren itsas izaera berreskuratu eta atlantikoko kulturekin loturak egitea du helburu. [Atlantikaldia.com](#) webgunean informazio gehiago aurkituko duzue:.

Kultura atlantikoaren teknologia, sareak eta etorkizunarekin lotuz, [Talaio Kooperatibatik](#) ekimen txiki bat antolatu dugu larunbata 20ean goizeko 10:00etatik eguerdiko 13:45etara. Lehenago ere antolatu ditugun [Eraldalab - Eraldaketa sozialerako laborategiak](#) ekimenean ildo jarraituko dugu, Sareola esperimentazio, eztabaida eta proposamenerako gune bihurtuko dugu.

Egitaraua

10:00-10:15 Aurkezpena: jardunaldiaren aurkezpena.

10:15-11:30 Tailer irekiak: Ekartzen dituzuen hainbat proiektuekin lan egingo dugu. Herriliburutegia, Raspberry irrati emisorea, Guifinet.

11:30-13:00 Hitzaldi laburrak: Herri liburutegiak, Etzi.pm eta informazio analisia, FM Irrati emisioa, Olatukoop, Txondorra eta bertan aurkeztu nahi duzuen edozer.

13:00-13:45 Eztabaida, sozializazioa eta konspirazioa.

#Sareola ekimena [Xenpelar etxean egingo dugu](#), eta [Etzikide](#) eta nahi duzuen guztiak gonbidatuta zaudete bertan parte hartzera, hitzalditxo bat ematera, tailerren batean parte hartzera edo momentu bat bertatik pasatzera. Elkar ikusteko eta hainbat proiektutan aurrera egiteko probestuko dugu. Bertan ere [ETZI.PM](#) proiektuaren detaile guztiak azalduko ditugu.

Animatzen zarete goizpasa elkarrekin egitera? Ekimena zabaltzen laguntzea eskatzen dizuegu. Informazio gehiago nahi baduzue, tokia edo zer egin dezakezuen zabaltzeko lasai jarri kontaktuan.

Bitartean [Baibalabek](#) garatutako [Atlantikaldia webApp-a](#) duzue Atlantikaldiaren egitarau osoa kontsultatzeko, eta [Herribizia informazio osatu eta jarraia](#) jasotzeko.

Irudia: [Atlantikaldia - Erreterriako Udala CC- BY - SA](#)